

Sustrai bila

HORRA hor Jaurilaritzaren azkene-ko ostikada: AEK lotsarik gabe itotzen saiatzea.

Erokeria litzateke, ordea, itoketa-saio hau eta beste itoketa-saio batzuk ez lotzea. Arregiren deklarazioek helburu hau daukate: AEKren aurkako kolpe hau isolatzea, burokrazi erabaki tekniko gisa aurkeztea, azpi-jokoa izkutatzea. Hitz batez: Euskal Herriari egia eman ordez, gezurra eskaintzea.

AEKren kontrako eraso hau ez baita batere tekniko, osoki politikoa baizik.

Jaurilaritzak ongi daki hizkuntzak ez direla burokrazi bidez, eta herri-mogimenduen laguntzarik gabe, inon berreskuratu. Eireko porrotaren irakaspene nagusia hauxe da: hizkuntzen indarkuntza beheitik gora lortzen dela. Ez goitik behera eta dekretuta.

Hots: Euzko Jaurilaritzak ez du inondik ere bilatzen euskararen zuzperkuntza. Euzko Jaurilaritza Madrileko Agintearen delegazio umila besterik ez da. Euzko Jaurilaritzaren helburua España da (Cantabriarekin, Murciarekin eta Salamancarekin goxo-goxo eta «sintiéndose cómodos» eraikitzea, hitz batez), eta ez inondik ere Euskal Herriaren pizkundea.

Hau guzti, eta ondorio guztiak atezaz,

zinez sinetsi arte, itsumustuka ibiliko gara. Jaurilaritza ez da gure gobernu, berena baizik. Ez da erakunde anaia, erakunde etsaia baizik.

Horregatik dago hor Buesa. Gaurko 'corregidorea' besterik ez da Buesa; eta Ardanza gaurko Laval. Eta hor dago.

Gertatzen zaiguna, hitz batez, 'normala' da. AEK mogimendu abertzalea da, herri-mogimendua bultzatzen du (horra hor 'Korrika' miresgarria), txapeldun agertzen da irakats-metodoetan, aintzindari 'Ele' aldikaritan... Hortaz, suntsitu egin behar da.

Ikastolak suntsitu behar ziren arrazoin berberengatik, EGUNKARIA ito behar den arrazoin berberengatik, aurki UEU maite eta txalagarri hau ito beharko den arrazoin berberengatik.

Lehenengo urratsa parean kide ofiziala sortu (HABE, 'Cursos de Verano', etab). Bigarren urratsa, burokraziak kontrolatzen ez dituen herri-sorkariak (AEK, UEU, etab.) ekonomikoki ito. Eta, hirugarren, Esparterok 1839an estrañatutako jukutriari eutsiz: «todos somos españoles, unidad constitucional, equiparación legal, igualamiento psicológico, cocido madrileño, participación en la dirección del Estado, sevillanas, Cantabria oriental

españolísima». Hori da katea.

Hego Euskal Herriak ez du ezagutu, eta ez jasan, 1939z geroztik, gaurko Jaurilaritza baino gobernu anti-abertzale eta anti-euskaldunagorik. Buesa. Atutxa eta Ardanza gure nazio-krisi ezin larriago honen sinbolo gisa pasako dira Historiara.

Ohore gaitza, mutilak!

Morak, Queipo de Llanok eta Tejerok bazuten, gutxienez, moztorrorik gabe agertzeko bertuterik aski.

AEKren sortzailea izan zen Rikardo Arregiren ehorzketa orain anaiak prestatzeak, badu halako kutsu makabroa...

Baina lehenago ere gertatua da Euskal Herrian. Nork eskatzen zuen bada, Madrileko Parlamentuan, Tomas Zumalakarregi 'facciosoaren' harrapaketa eta epaiketa, anaiak berak baizik?

Gauzak garbi daude.

Noiz konturatuko eta sinetsiko?

Herri fededun honi izugarri kostatu baitzaio beti egiazko etsaiak berezte.

Nolanahi ere, Gora AEK! Eta Gora AEKide guztiok!

IXILLARDEGI
HIZKUNTZALARIA

Santiago bideak

URTE hau (1993) ikaragarritzko urtealdia izango da Konpostelako Santiago hiriarantz. Antzinako ohi-turei jarraituz, munduko bazter guztiatik helduta, sekulako jendea biltzen ari omen da. Denok oroitzen dugu, 500.000 gazte inguru batu zireneko, Aita Santuak han egin zituen egunetan.

Gauregun ere, egunero 2.000 erromes sartzen omen dira. Zenbat benetakoak eta zenbat turista soil bezala?... Santiago urteari urte santua deitzen zaio; zazpi urtetik behin gertatzen da; hau da, uztailean 25, igandea denean ospatzen den urtea.

Santiago bideak badu zer-ikusia eta eragina gure herrian, kulturaren eta historiaren; garrantzi hau ukazina da. Gure Euskal Herriatik zehar joaten baita biderik ospetsuena, frantses-bidea deritzona, eta bide nagusi horez gainera beste Konpostelarako bide asko zeharkatzen zuten Euskal Herria.

Bide nagusi horrek Nafarroan sartu eta Orreagatik, Iruñetik, Garestik, Logroñotik Burgos aldera joaten ziren erromesak. Jaka aldetik eta Dantxarinetik zetozenak ere, Nafarroan sartu eta bide nagusi hontatik aurrera egiten zuten. Ondoren Logroño, Santo Domingo de la Calzada, Burgos, Fromista, Sahagun, Leon, Astorga, Ponferrada, Villafranca

del Bierzo, Sarria, Melide eta Santiago.

Irudiak sartzen ziren beste asko eta batzuk Gipuzkoan zehar San Adriandik Arabako bidea hartuta. Burgosen elkartzen ziren beste bide nagusiko erromesekin; baina beste batzuk Kostaldeko bedetik, Kantauria zeharkatuz Santiagora iristen ziren, Gipuzkoan bi bide ziren, bat Kostaldekoa (Hondarribia, Pasai Donibane, Donostia, Usurbil, Orio, Zarautz, Getaria, Azkizu, Zumaia, Itziar, Deba eta Astigarrabia-Mutriku), eta bestea barnekaldekoa (Irun, Ojartzun, Errearteria, Astigarraga, Hernani, Andoain, Amasa, Tolosa, Altzo, Alegia, Beasain, Mutiloa eta Zegama).

Baziren baita Ingalterra aldetik eta itsasoz etortzen zirenak ere. Hauetariko askok, euskal kaietan ontziak utzi, eta hemendik barrena egiten zuten bidaia.

Hamargarren mende inguruan hasita, ia mila urterik hona, gizaldiz-gizaldi, Euskal Herriak Santiagorekin izan du ikusia eta gehiago. Eta Santiago bidekoen oin-hotsik eta kantarik entzun izan zen hemen.

Kondairak dioenez, Santiago Iberiar penintsula ebanjelizatzen ahalegindu zen arrakasta handirik gabe eta, ondoren Jerusalemera itzuli eta bertan martiritzatua izan zen. Herodes Agrippa erregeak lurperatua izan zedin debekatu zuenez, haren

jarraitzaileek gorputza itsas-ontzi batetan sartu zuten, eta era misteriotsuan, Galiziako kostaldera iritsi zen eta Ulla ibaian gairi Ira de FLaviaraino (gaur egun Padrón) heldu zen. Hemendik gaurko Compostelara eraman zuten. Landetan erori zen izar-urriak (Campus Stelae) apostoluaren aztarnak non zeuden jakinarazi zion Pelayo eremutarrari.

Oporraldiatiko atsedean garai honetan, Santiagotik oihu hauxe datorkigu; bekaikeriari maitasunez erantzun, heriotza bide guztietan biziaren errespetoa indartu, guda eta sesio bide guztietan bakea nagusitu dadila. Horregatik zer egia haundia beste hau: Jainkoa haundi daukanak ez dauka gizon-emakumea txiki.

Galiziako Santiagora begiratzen nuen eta dut pozez beterik, honelakoetan alaitasuna eta maitasuna ez baita ikusten beterik. Leku askotan, nahiz egon jaietan, ez da izaten era hontako festarik, aurrera jarrai itxaropenez hori ez dago utzerik, eta horrelaxe beti azaldu gaitezen, ez baitugu izango damurik.

Ea datorren urtean, bertako berriak zuzenetik eta erromesbidetik idazten ditudan. Hala izan dadila.

JOXE AGUSTIN ARRIETA
APAIZA

BERRIAKZIRI



FLOREN AOIZ
HBko bozeramailea
ARGIA

«Hemen badirudi abertzaleak erreserba bateko indioak bihurtzen ari garela»



FERNANDO SAVATER
Filosofo
DIARIO DE NAVARRA

«ETAk Euskadi zapalduta dauka»



RASIM DELIC
Bosnia - Herzegovinakoa
Amadako burua
EL PAIS

«Bosnia hiru Estatu etnikotan zatitzen bada, gatazkak jarraitu egingo du»



MARIA ANGELES AMADOR
Osasun ministroa
EL CORREO ESPAÑOL

«Nire us-tez, Azkuna planak errealdismoz heltzen die Osakidetzaren gestioak dituen arazo nagusiei eta esperientzia ona da»

ZAKILIXUT



© Olariagak